

Donostia,

2024ko uztailaren 19an.

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, iragan hilaren 16an GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) Ekologiako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkari Marrero jaunari hiri hondakin solidoen bilketari buruzko interpelazio bat aurkeztu ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

Hilaren 16ko batzordean adierazi genuen moduan, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 11/2022 Legeak hiri-hondakinekin lotutako zenbait betebeharrak ezartzen ditu. Zehazki, 2020rako, papera, metala, plastikoa eta beira **nahitaez** gaika biltzea; 2022-06-30erako, biohondakina biltzea; 2022-07-01erako, zura, mineralak, metala, beira, plastikoa, igeltsua eta berrerabil daitezkeen elementuak (teilak, komun-ontziak, egitura-elementuak) nahitaez sailkatzea; 2024-12-31rako, ehunak, sukaldeko olioak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak nahitaez gaika biltzea; 2023rako, hiru litrotik beherako plastikozko botilen % 70 gaika biltzea.

Gainera, berrerabiltzeko eta birziklatzeko konponketa-helburuak ezartzen ditu, epe ezberdinekin, denak 2035era arte inplementatzekoak.

Hala ere, Donostia urrun dago 7/2022 Legeak ezarritako helburuak betetzetik, zinegotzi ordezkariak berak ekainaren 17ko Ingurumen Kontseiluan aitortu zuen moduan. Kontseilu horretan, 2023ko gaikako bilketako datuak eman ziren. Hiri-eremuko gaikako bilketaren eta

masako bilketaren ehunekoei dagokienez, gaikako bilketa % 41,3koa da, 7/2022 Legeak 2025erako ezartzen duen % 55etik, 2030erako ezartzen duen % 60tik edo 2035erako ezartzen duen

% 65etik oso urrun. Are gehiago, 2020rako ezarritako helburuak ez dira bete ere egin; are gehiago, 2020 eta 2023 artean handitu egin da helburuen eta gaikako bilketaren arteko aldea.

Udal-gobernuak ez du ezarri Legean aurreikusitako nahitaezotasuna betetzen duen gaikako bilketa-sistematik, hain zuzen ere bertan zehaztutako ehunekoetara iristeko. Egia esan, frakzio desberdinetarako edukiontzia dituen gaikako bilketako irlak ez dira oraindik Donostiako auzo guztietan ezarri. Eta ez dira edukiontzi "adimendunik" instalatzen ari ere, edo hondakinak gaika biltzera behartzen duen beste edozein sistematik, ezta horri buruzko informazioa ematen duenik ere; izan ere, informazio hori ezinbestekoa izango da 11/2022 Legean 2025-04-23rako aurreikusitako moduan, sortzen diren hondakinen araberako tasa ezarri ahal izateko.

Udal-gobernuak erabaki du hondakinen bilketa-tasa % 26 igotzea 2025erako, 7/2022 Legeak 2025. urterako hala xedatzen duela argudiatuta. Hala ere, Legeak xedatzen du tasa bat ezarri behar dela, edo, hala badagokio, zergaz kanpoko ondare-prestazio publiko bat, espezifikoa, berezia eta ez-defizitarioa, hondakinak sortzearen araberako ordainketa-sistemak ezartzea ahalbidetuko duena eta hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eragiketen kostu erreala, zuzena edo zeharkakoa, islatuko duena, eragiketa horien zaintza, zaborategiak itxi ondorengo mantentze-lanak eta zaintza, kontzientziazio- eta komunikazio-kanpainak eta ekoizlearen erantzukizun zabaldua aplikatuzetik, materialen salmentatik eta energiatic eratorritako diru-sarrerak ere barnean hartzen dituena. Hau da, aipatutako neurri horietatik guztietatik, tasa areagotzearena izan da udal-gobernuak aplikatutako bakarra. Igoera hori txikiagoa izan liteke hondakinen kudeaketa eraginkorragoa egingo balitz, eta

Tel. 943481717 -

udal-gobernuak neurri gehiago jarri izan balitu abian hondakinen hierarkizazioa betetzeko: murriztu, berrerabili eta birziklatu.



Grupo Político ELKARREKIN DONOSTIA Talde Politikoa

Zoritzarrez, Donostia urrun dago 7/2022 Legeak eta hondakinen kudeaketari buruzko Europako zuzentzaruek planteatutako helburuak betetzetik. Are gehiago, Europar Batasunak estatu

kideei ohartarazi die zuzentzarauak betetzen ez badituzte, zuzeneko zehapenak jarriko zaizkiela administrazio eskudunei, gure kasuan udalerriei, horiek baitira hondakinak biltzeaz arduratzen direnak.

Beraz, kontua ez da, zinegotzi ordezkariak batzordean esan zuen moduan, udal-gobernuak lege hori betetzeko asmoa izatea, ezta gaikako bilketa areagotzen jarraitzeko borondatea izatea (gainera, hori ez da gertatzen); udal-gobernuaren betebeharra da lege hori erabat betetzea.

Horiek hala direla, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio jarduketan egutegi xehatu bat aurkez dezala, jarduketa horiei dagozkien aurrekontuekin, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legean ezarritako gaikako bilketaren helburuak lortzeko.

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia